

Aitzoli agurra

MARTIN UGALDE



AGUR zuri, Jose Ariztimuño, «Aitzol».

Izenez bakarrik ezagutzen zintugun orain gutxi zure lan osoak bildu eta gero zure mezuaz jabetu garen arte. Ez ziren, hain gazte eta hain itxaropentsu, alferrik sakrifika-tu, alafede!. Nekez egindako bidez gero tratatu gaiztoa nozitu zenuen eta azkenik ankerrek gorrotoz bizi osoa kobratu zituzten zure euskal poesiaren bengantzari.

Beste ametsen artean Euskal Herriarentzat euskal egunkari bat nahi zenuen, eta horretarako milioi erdi bat pezetaren eskean ibili zinen, abertzaleok aginterik eta dirurik ez genuen hartan. Zeuk bazenekien, «Lizardi»k bezala, egunkari euskaldun hori behar zuela euskarak, hau eguneroko notizien argitan piztuko bazen: euskaldun analfabetoak bere hizkuntzan irakurtzen ohitu zitezten eta hortik eguneroko eskaileretatik liburu eta jakintzara igo zitezten.

Orduko milioi erdiaren beharra, gaur milioi askoren beharra bihurtu da. Garestitu da dena! Ez hainbat diruz, halere, sosezu horni baigara, baizik eta abertzaletasunez, hontatik gara eta txirrotu. Pobrezia hontaz behega jota gabiltz Madrilan. Baina fededun zarenez, poz bat kitagarri: euskal EGUNKARIA jaio zaigu 1989ko Gabonetarako estalpetxo honetan.

Hemendik, zeuri eskerrak, eta Agur t'erdia.

Elizpetik merkatura

JOAN MARI TORREALDAI



DUELA 25 urte Durangoko Liburu eta Diskoen Azoka, lehena, ospatu berrian, elkarriketa bat egin nion Jakin (Jakin, 20, 1965)

Gerediaga Elkarteko Azoka-Antolatzaileari, Leopoldo Zugazari.

Honela nioen sarreratarxoan: «Durangoko jaiak aztarna itxiko dabela atzetik, Azokaren barri euki nebanerako pentsa neban». Asmatzea ez zen zaila nonbait, osoki asmatu nuen eta.

Edadearen abantaila da oroitzapena, atzera begiratu ahal izatea norbere bizitzan, alegia. Eta balio du egindako bidez jabetzeko. Bidearen luzeraz eta mamiaz konturatzeko, gure kasuan. Durangoko Azoka, 25 urteotan, elizpetik merkatura pasa da: euskal kultura osoaren sinbolo eta errealitate!

Duela 25 urte, Santa Mariako elizpean bildu ginen 25 argitaratzaile eta banatzaile. Salmentan zegoen guztia erakutsita ere, zer ikusi handirik ez zen han, gaurko irakurle arruntaren ikuspegitik. Gaur egun urte batean produzitzen den adina bai ote, denetara?

Eta 25 urte barru? 25 urte barru zer izango ote da Durangoko Azoka hau? Elizpetik merkatura aspaldi pasea da. Merkaturan dago orain euskal liburua. Baina ez bakarrik. Erdal liburu lagundua baizik. Urrezko ezteietan, Azoka bakarrik. Erdarazkorik gabe. Hasiera xume hartatik honako bidea lekuko.

• egin

FM lizentziak:
Gobernua ala
enpresa pribatua?

Baina, gainera, gobernuaren erabakia ez dator bat herriaren gehiengoaren pentsamenduari, ez behintzat Elizondo eta Iruineari dagokienean, ukatutako emisorek espero zituzten difusio barrutiak(...).

Herritarren eskakizun honi entzungor egin dio Nafarroako exekutibak. Urralburu Gabineteak ekin-bide pribatuari dagozkien kriterioak ezarri dizkie baimenoi, bere betebeharra, aitzitik, beste batzuri lehentasuna ematea zen —aipaturiko enpresa edo hizkuntza aniztasunarena adibidez—, errespetua zor diolako irratia duen herri zerbitzu izaerari eta botere publikoek ziurtatu behar duten informazio anitzaren eskubideari.

CARMEN CHINCHILLA / 90-XII-5

• DEIA

Euskarari erdal
legerik ez

Euskaldunen kopurua gutxitu bada, herri hau mendetan zehar zapaldua, txikitua, bortxatua eta menperatua izan delako gertatu



ZULET / DIARIO VASCO / 90-XII-5

da, eta ez aukera libre-hori egin duelako.

Euskal Herrian Euskaraz erakundeak, Euskal Herrian bizi garen euskaldun eta erdaldun guztiei, euskararekiko bere pasibitatea hautsi dezaten eskatzen die, euskaldunak alfabetatuz, erdaldunak ikasiz eta gure eskubide kolektiboak zapaltzen dituztenak salatuz.

Euskal Herriak bere nazio hizkuntza gal ez dezan eta gaur euskara normaldu dadin herri dinamika duen garrantzia ahasztu gabe, azpimarratu behar da, herri dinamika hori administrazioaren alorretik eta positibo batez osatzen ez bada, euskara ez dela sekulan Euskal Herrian normalizatuko. EHEren ustez, herri dinamika sendo batek eta instituzioen benetako euskara-

ren aldeko lan batek bakarrik lor bait dezake nazio hizkuntzaren normalkuntza.

EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ / 90-XII-5

• Navarra

Eskalatzaileak
kilikolo

Errespetagarriak izango dira, zalantzarik gabe, enpresa esplotatzailearen interes ekonomikoak eta sorrerazten dituen lanpostuak, baina ez da komeni pare bat ohar ahanzteare:

1.- Eskalada eskola horretatik, gaur egun arriskutan dinamita dela medio, irten direla munduko gailur garaientara Euskal

Herriaren izena eraman duten mendizaleak.

2.- Eskalada eskolarekin edo gabe, Atxarteko inguruek eta bere orma bertikal dotoreek edertasun natural bat osatzen dutela, zeina herri oso baten ondare bezala errespetatu behar den.

Pentsa al dezakezue zer nolako iskanbila sor zatekeen munduan norbaitek Naranjo de Bulnes kareharri birrinduan bihurtu nahi balu?(...).

Edertasunak ere badu bere prezioa eta Atxarteko haitzak ez dira harginen ezta eskalatzaileen ondare bakarrik: paisaia natural berezi bezala denonak dira.

Politika penagarria paisaiak apurtzearena pezetak lortzeko. JOSE RICARDO PALACIO / 90-XII-5

PERTSONAIA



Antoni Asuncion

Era hontako berriak orain sarritan dira izaten, espetxetako zuzendaria jardun berri da esaten. Saiatuko naiz preso batzuei askatasuna ematen, Gabonetako festa aldia etxean pasa dezaten.

Preso batzuek aukera dute Gabonetan etxerako, zerbait ikusi izango dute gauza hau ematerako. Ez al da behintzat istilu txarrik hau dela ta aterako, egiten dana izan dedila herriaren onerako.

JOXE MARI LERTXUNDI

ZUZENDARIARI

Irakurlea idazle

ERITZI orri hauetan, «Zuzendariari» izeneko saila izango du irakurleak bere eritzia plazaratzeko. Irakurleak ere idazle izateko aukera dauka eguneroko sail honen barruan.

Era guztietako eritzia eta ideiak jaso nahi genituzke hemen. Egunerokotasunari atxekitakoak. EGUNKARIAN argitaratutakoei buruzkoak. Politika, nazioarte, kultura, kirola, gizarte, ekonomia... edozein esparruri buruzko gutunak ongietorriak izango dira.

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean.

Laburtu beharra izanez gero, zuzendari-tzak bere esku izango du horretarako eskubidea. Jasotako eskutitzak ez zaizkio itzuliko idatzi dituenari.

Badakizu bada irakurle, zure gutunen zain gauzkazu sail honetan.

EGUNKARIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Editorial Kontseiluko Lehendakaria:
JUAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Kazetari Zuzendaria:
PELO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIE Etxezaharreta
INAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: Lasarte-Oria Industrialdea / Antza. 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / Telef: 37 07 38

Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / Telef: 46 90 22 / Faxe: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / Telef: 23 38 72 / Faxe: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / Telef: 17 80 78/79 / Faxe: 17 80 77

Gipuzkoa: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / Telef: 42 69 96 / Faxe: 42 93 18

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / Telef: 423 90 62 / Faxe: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / Telef: 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11